

# ELITEKO EMAKUME PILOTARIEN DONOSTIA SARIA

## 2021erako proposamena Udalari

### ZERGATIK SARI HONEN ANTOLAKETA PROPOSAMENA DONOSTIAN

EPE (Emkume Pilotarien Elkarte) 2019ko ekainaren 29an publikoki aurkeztu genuenetik pixkanaka gure helburuak betetzen joateko hainbat ekintza aurrera eramaten ari gara.

2020ean, hitzartuta genituen jarduera guztiak bertan behera utzi beharrean geratu ginen, pandemia egoera honek bultzatuta. Aurten ordea, espero dugu pixkanaka gauzak bere onera etortzea eta horregatik berriz ere burubelarri ekin diogu hainbat ekintza garrantzitsu antolatzeari. Hauetako bat Donostiako udalari gaur bertan helarazi diogun hau da; hain zuzen ere **Eliteko Emakume Pilotarien Donostia Saria antolatzearena**.

Donostia eszenatoki oso egokia iruditzen zaigu arrazoi ezberdinengatik:

- Bertan dagoen pilota tradizioagatik.
- Emakumezkoen pilota estrukturalki lantzen hasi zen Erkidegoko lehen probintzia Gipuzkoa izan zen. 1990an, Donostiako Intxaurren auzoan elkartu ziren lehenengo emakume palista federatuak entrenatzaile batekin. Datu hau ere aipagarria da EPErentzat.
- 2004an, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, Emakumea Pilotari izeneko proiektua jarri zuen abian. Bertan Gipuzkoako 8 udalerrri nagusienek parte hartu zuten, tartean nola ez Donostia zegoelarik. Proiektua osotasunean 14 urtez egon da martxan eta Donostiako instalazioak, Atano, Balda, Gaskako trinketea, Intxaurren, Altza... asko erabili izan dira. Donostian gainera aisialdiko pala ikastaroetan ia 60 emakume biltzea lortu zen urte batzuetan.
- Nabaria da Donostian pilota zaletasuna badagoela eta oihartzun handia duten hainbat txapelketa burutzen direla urtero: Antiguon, Egian, Añorgan.... Azken hiru-lau urteetan

txapelketa hauetan emakumeen presentzia egon den arren, mutilenekin alderatuta ez da batere parekidea izan. Argi dago oraindik asko falta dela berdintasuna lortzeko hemen ere. Gainera, antolatzaileak gizonezkoak izaki ez dute emakumezkoen pilota behar bezala ezagutzen eta gizonezkoen egituretara bideratzen dute dena.

- Bestetik, XX. Mende hasieran Donostian emakume raketistek ere presentzia handia izan zuten. Raketisten enpresa gizon garrantzitsuena donostiarra izan zen, Ildefonso Anabitarte (puntista ohia). 1919 inguruan, raketistek Igeldoko frontoia inauguratu zuten, bertako jaiak izaki, eta bertan Maria Cristina erregina egon zen. Grosen berriz, 1938an Fronton Gros izeneko pilotalekua inauguratu zen. Bertan, raketisten eskola bat antolatu zuten, Donostia eta inguruetako neskek bertara joaten zirelarik ikastera. Lehenengo raketista profesionalak bertatik atera ziren (20 bat inguru, Donosti izenarekin jokatzeko zuten bat ere bai). Beraz, pilotari profesionalak izan ziren emakume raketisten historian, Donostia ardatz oso garrantzitsua izan zela ere argi geratzen da datu historiko hauekin.  
(raketisten historiari buruzko erreportaia ikusi [hemen](#))

Guzti hau kontuan hartuz, **EPetik uste dugu Donostiak izan behar duela berriz ere, egungo eliteko emakume pilotariei bultzada emateko hiria.**

Honengatik, lehen ekintza modura, **Donostian goi mailako txapelketa azkar bat antolatzea oso garrantzitsua litzateke.** Emakumeok pilota munduan gure lekua daukagula erakusteko, bisibilizazio serio bat egiteko eta Donostian berriz ere emakumezkoen pilota eskolak antolatzera anima ditzagun bertako elkarteak. Donostiako neskatilek goi mailako emakume pilotari erreferenteak ezagutzeko modu bat ere badela uste dugu. Eta horrek beste bide bat ireki dezake nesken pilota eskolak antolatzeko eskaerak sor daitezen.

Horrelako zerbait antolatuko den lehenengo hiria izango litzateke.

## TXAPELKETAREN EZAUGARRIAK

### a. Ze frontoietan

EPEren proposamena, emakume pilotarien joko gehiago balioetsiko den pilotalekua erabiltzea da. Eliteko Emakume Pilotarien Donostia Saria, Atano III.ena ez den beste frontoi polit, mitiko, erakargarri eta txikiago batean antolatzea gustatuko litzaiguke. Zergatik? Instalazioa txikiagoa izatean, emakumeen jokoen ikusgarritasuna handiagoa izango delako.

Beraz, txapelketa hau **Antiguoko frontoian** antolatzea gustatuko litzaiguke.

### b. Noiz

Aste Nagusiko jaietan antolatzea aurreikusten dugu. Baina Covid egoera kontuan hartuz, Euskal Jaien inguruan ere antolatu liteke, iraileko lehenengo edo bigarrenko asteburuan.

### c. Modalitateak

Egungo EPEko kideek praktikatzen dituzten bi jokamolde garrantzitsuetan jokatzera erabaki dugu:

- **Eskuz banaka kantxa osoan**

Banakakoa aukeratzea erabaki dugu partidak askoz ere intensoagoak eta interesgarriagoak iruditzen zaizkigulako ikusleei begira. Txapelketa honetan eskuzko EPEko rankineko lehenengo 4 pilotarik jokatu ahal izango dute.

- **Gomazko paletaz binaka**

Gutzira lau bikotek parte hartuko dute. Hasiara batean, paletako EPEko rankineko lehenengo hiru atzelari eta hiru aurrelarik jokatu ahal izango dute aurtengo txapelketa. Falta diren beste biak, oraingoz EPetik kanpo dauden iparraldeko pilotariak izatea gustatuko litzaiguke. Zergatik? Elite maila bermatu nahi dugulako eta iparraldeko palistak egungo munduko pilotari onenen artean daudelako (ikus besterik ez dago hauen kirol kurrikuluma, munduko txapeldunak behin baino gehiagotan izan direlako).

d. **Pilotariak.**

Txapelketa honen helburua, EPEko eliteko pilotariei goi mailako lehiaketa garrantzitsu bat eskaintzea da. Eta gainera, neska pilotari gaztetxoentzat erreferentea izango da.

Eskuko jokalarien artean Patri Espinar, Leire Etxaniz, Miren Larrarte, eta Miriam Arrillagaren partehartzea aurreikusten da.

Paleta gomaz berriz, iparraldeko bi pilotari onenetakoak, Maritxu Housset (2018ko azken munduko txapelketan, titular modura jokatuta, urrezko bi domina lortu zituen emakume pilotari bakarra) tartean izango delarik. EPEko kideen artean berriz, munduko txapeldun eta txapeldunorde izandako beste hainbat pilotariren partehartzea aurreikusten dugu. Hala nola, Maider Mendizabal, Amaia Irazustabarrena, Maider Huizi, Ariane Arrieta...


e. **Txapelketaren formatua.**

Bi jokamoldeetan lehiaketa sistema berdina erabiliko da: txapelketa azkarraren formatua. Hau da, asteburu batean jokatu da Sari hau, 2 finalerdi eta finalak.

ESKUZ BANAKA		PALETA GOMAZ BINAKA	
Finalerdia	A1 – B2 B1 - A2	Finalerdia	A1 – B2 B1 - A2
Finala	A1/B2 – B1/A2	Finala	A1/B2 - B1/A2

Edozein argibide behar izanez gero hemen gure kontaktua:

- [info@epe.eus](mailto:info@epe.eus)
- Maider Mendizabal: 696 39 52 11



# GRAN PREMIO DONOSTIA de PELOTA FEMENINA

## Propuesta para el Ayuntamiento para el 2021

### PORQUÉ PROPONEMOS LA ORGANIZACIÓN DE ESTE GRAN PREMIO EN DONOSTIA

Desde que el 29 de junio del 2019 presentamos públicamente EPE (Emakume Pilotarien Elkartea – Asociación de Mujeres Pelotaris), poco a poco estamos llevando a cabo diferentes acciones para ir consiguiendo los objetivos que nos propusimos.

En el 2020, al igual que otras muchas entidades, debido a la pandemia, tuvimos que cancelar todas las actividades que teníamos previstas y confirmadas. Este año esperamos que poco a poco las cosas vuelvan a una normalidad que nos permita llevar a cabo este tipo de actividades sin riesgo y con espectadores y practicantes. Por ello, nos hemos puesto manos a la obra en la organización de varias actividades importantes. Una de ellas es la que acabamos de registrar en este Ayuntamiento de Donostia: el de **organizar el Gran Premio Donostia de Pelota Femenina**.

Donostia nos parece un escenario ideal por varias razones:

- Por la gran tradición pilotazale que existe.
- La primera provincia de Euskadi que empezó a trabajar la pelota femenina de manera estructural fue Gipuzkoa. Las primeras mujeres palistas federadas se juntaron en 1990 en el frontón de Intxaurreondo con un entrenador. Este dato también es importante para EPE.
- En el 2004, la Federación de Gipuzkoa de Pelota Vasca, con la ayuda de la Diputación Foral de Gipuzkoa, puso en marcha el proyecto llamado “Emakumea Pilotari”. En este proyecto participaron las 8 localidades más importantes de Gipuzkoa, entre las que se encontraba obviamente Donostia. Este proyecto en su totalidad ha estado en funcionamiento durante 14 años, y las instalaciones de Donostia como el Atano III, Balda, el trinquete del Gasca, los

frontones de Altza, Intxaurreondo... se han utilizado mucho. Además, en Donostia durante algunos años fueron casi 60 las mujeres que practicaban la pala como ocio.

- En Donostia hay una gran afición a la pelota y cada año se organizan diferentes campeonatos importantes en el Antiguo, en Egia, en Añorga... Aunque en los últimos 3-4 años, ha habido presencia de las chicas pelotaris en estos campeonatos, en comparación a la de los chicos no ha sido nada igualitario. Está claro que todavía queda mucho para conseguir la igualdad aquí también. Además, teniendo en cuenta que los organizadores son hombres, no conocen muy bien la pelota femenina y acaban haciendo las cosas desde la estructura masculina.
- Por otro lado, a principios del siglo XX, las mujeres raquetistas también tuvieron una gran presencia en Donostia. El empresario más importante de las raquetistas fue un ex pelotari puntita donostiarra llamado Ildefonso Anabitarte. En 1919, con motivo de las fiestas de Igeldo, las raquetistas inauguraron el nuevo frontón, en presencia de la Reina María Cristina. En 1938, se inauguró el frontón Gros. Allí se organizó una escuela de raquetistas que fue la cuna de todas las chicas de Donostia y la zona que querían aprender y entrenar a raqueta. Salieron de allí las primeras raquetistas profesionales (unas 20 chicas, una de ellas además jugaba con el nombre Donosti). Por lo tanto, con estos datos históricos queda claro que incluso en la historia de las raquetistas profesionales, Donostia fue un lugar muy estratégico e importante.

(ver la historia de las raquetistas [aquí](#))

Teniendo en cuenta todo esto, desde EPE **creemos que una vez más, tiene que ser Donostia la ciudad que le vaya a dar un importantísimo impulso a la pelota femenina de élite** de hoy en día.

Por esto, como la primera acción, sería **muy importante organizar un torneo rápido de alto nivel en Donostia**. Para mostrar que las mujeres ocupamos nuestro lugar en el mundo de la pelota vasca, para hacer una visibilización seria y para que los clubes de pelota de Donostia se animen a crear escuelas de pelota para niñas. También creemos que es una oportunidad para que las chicas jóvenes de Donostia conozcan a las pelotaris referentes de máximo nivel. Y esto quizá traiga consigo una demanda de escuelas de pelota para chicas. Y por último, sería la primera ciudad en la que se organizaría algo parecido.

## CARACTERÍSTICAS DEL TORNEO

### a) **Frontón de juego**

Desde EPE proponemos utilizar un frontón en el que se podrá valorar mejor el nivel de juego de las pelotaris. En lugar de utilizar el gran Atano III, para este Gran Premio Donostia nos gustaría utilizar otro bonito, mítico y atractivo frontón. ¿Por qué? Porque al ser la instalación más pequeña, la espectacularidad del juego de las mujeres es mayor.

Por ello, nos gustaría organizar este torneo en el **frontón del Antiguo**.

### b) **Cuándo**

Preveamos organizarlo para las fiestas de Semana Grande. Pero teniendo en cuenta la situación del Covid, se podría posponer para Euskal Jaiak, al primer o segundo fin de semana de septiembre.

### c) **Modalidades**

Hemos decidido organizar el torneo en las dos modalidades más importantes en las que juegan las actuales pelotaris de EPE.

#### ▪ **Mano individual**

Hemos decidido apostar por el mano a mano, porque nos parece que de cara a los espectadores, este tipo de partidos son mucho más intensos e interesantes. En este torneo jugarán las primeras cuatro pelotaris de mano del ranking de EPE.

#### ▪ **Paleta goma maciza**

Participarán cuatro parejas. En principio jugarán las tres primeras delanteras y las primeras zagueras del ranking de paleta de EPE. La cuarta pareja nos gustaría que la formaran las pelotaris de iparralde, que aún no están dentro de EPE. ¿Por qué? Porque queremos garantizar el nivel de élite, y las palistas de iparralde están dentro de las mejores pelotaris del mundo (no hay más que ver los curriculum deportivos de éstas, las cuales han sido campeonas del mundo varias veces).

### d) **Pelotaris**

El objetivo de este torneo es ofrecer a las pelotaris de élite de EPE un torneo de máximo nivel. Además será una referencia para las pelotaris más jóvenes.

Entre las jugadoras de mano esperamos la participación de pelotaris como Patri Espinar, Leire Etxaniz, Miren Larrate y Miriam Arrillaga.

A paleta goma, esperamos que puedan venir dos de las mejores pelotaris de iparralde, siendo una de ellas la super campeona del mundo Maritxu Housset (la única mujer pelotari que en el mundial del 2018 en Barcelona consiguió dos medallas de oro, siendo ella titular). Y entre las pelotaris de EPE, contamos con la participación de pelotaris que han sido varias veces campeonas y subcampeonas del mundo como, Maider Mendizabal, Amaia Irazustabarrena, Maider Huizia, Ariane Arrieta...

e) **Formato del torneo**

Se utilizará el mismo sistema de competición en ambas modalidades: el formato de torneo rápido. Es decir, que este torneo se jugará en un solo fin de semana con dos semifinales y las finales.

MANO INDIVIDUAL		PALETA GOMA PAREJAS	
Semifinal	A1 – B2 B1 - A2	Semifinal	A1 – B2 B1 - A2
Final	A1/B2 – B1/A2	Final	A1/B2 - B1/A2

En caso de que necesites cualquier aclaración, aquí tienes nuestro contacto:

- [info@epe.eus](mailto:info@epe.eus)
- Maider Mendizabal: 696 39 52 11

